

AZKEN BALEA

Balearen bertsoak abestuko dira. Bukatzean, balea harrapatu dutenak eszenatokira igoko dira arpoi, dinamita, sangradera eta guzti. Irabazleen aldeko oihuak entzungo dira. Festa giroa: txaloak, “gora”, “aupa” oihuak... Kanpai-hotsak entzutean, isildu egingo dira denak. Apaiza sartuko da. Denek txapelak erantziko dituzte.

APAIZA: Jauna, dituzula esker eta laudorioak, milioiak eta milioiak baino gehiago, zeren egin diguzu liberalki grazia edekitzeko (kentzeko) arrain handienari bizia, gure indarrak ez ziren deus onenen aldean, zure laguntza dugu sentitu konbatean. Ezen zure baitan ur-satitsu batek etsaia urrutitik ehiza dezan nahiz dela jangaia, hala guri ere egin diguzu dohaina, batzuentzat itsasoan den sendoen arraina lehorrera dakarkigu eginik sarraskia. Bizi zela atzaparraz zebilen ehiza. hala dugu naturaren mirariz bazterra ohoratzen, (Jaungoikoa) zuk duzula eskerra.

Berriz ere kanpai-hotsa entzungo da. Giroa lasaitu egingo da. Kazetari bat agertuko da.

KAZETARIA: Zorionak, marinel jaunok. *El Correo Guipuzcoanoren* izenean, egindako balentriarengatik zorionak eman nahi dizkizuet. Probintzia osoan ez da beste konturik, denak harri eta zur daude, eta protagonistek zer sentitu duten jakin nahi dute bai *a priori* eta bai *a posteriori*. Esadazue, zaila izan al da?

ARRANTZALEA 1: Zaila? Bai zera!...

ARRANTZALEA 2 (*ukalondokoa*): Izango ez zuan ba! Ikustekoa zuan zein gogor egiten zuen baleak; hura zuan isatsa astindu beharra. Gorriak ikusi genitian, ez al da hala?

DENEK: Bai, bai, bai...

ARRANTZALEA 3: Ia-ia txalupa hondoratu zigun isatsarekin jota. Honelaxe egin zuen... plaaaash!

KAZETARIA: Ausarta izan behar da halako arraintzarrari aurre egiteko. Donostiarrei ere ez zitzaien adorerik falta, baina... *in fraganti* harrapatu zituen. (*Harritu aurpegiak*). Ez al dakizue ezer? Itxuraz, Donostiako hondartzatik gertu ibili zen balea goizeko lehen orduetan.

ARRANTZALEA 1: Kapitaleko *señoritoek* alde egiten utzi zioten orduan! Haientzat kalte!

KAZETARIA: Ez omen zien ezertarako denborarik eman, baleak buelta eman eta Oriora egin omen zuen *motu propio*.

ETXEKOANDREA 1: Ehun kiloko atsoren bat ikusiko zian kontxan bikini txuri-urdina jantzita, eta, beldurtuta, alde egin gaixoak. Ez duk, ez, gutxiagorako.

KAZETARIA: Hamar txalupa eta ehun gizon baino gehiago atera ziren portutik zetazeoaren bila. Baina ezin izan zuten harrapatu.

ARRANTZALEA 3: Gu bizkorragoak izan.

ARRANTZALEA 2: Traineru hobeak ditugu, eta eurek baino hobeto egiten dugu arraunean. Haiak mugitzerako, Orioko bost txalupa zeuden balearen jiran.

ETXEKOANDREA 2: Idatzi, idatzi periodikoan patroien izenak, urte askoan gogoan izateko: Olaizola, Loidi, Uranga, Atxaga eta Manterola. Hura zen koadrila! Bost handiak!

ARRANTZALEA 4: Eta ñoñostiarrak konforme ez badaude, esaiezu berriz ere datorren udako estropadetan emango diegula beste lezio bat.

DENEK: Hori, hori!... Ondo esana... Bakoitzari berea...

KAZETARIA: Hitz egin dezagun orain *Balaena Biscayensis*az. (*Zertaz? Harritu aurpegiak*) *Baleaz!* Antza denez, baleontzi frantsesetatik ihesi zetorren. Beharbada zaurituta zegoen eta hona iritsi zen *in articulo mortis*.

ARRANTZALEA 1: Ez dakit *en culo mortis*, baina... pixka bat txolinduta bai!

ARRANTZALEA 2 (*ukalondokoa*): Egon hadi isilik! Ni baino sanoago zegoan eta! Nola mugitzen zen ikusi besterik ez zegoan. Haiak marruak egiten zitian!

ARRANTZALEA 3: Egia. Beldurra ematen zuen entzuteak. (*Itxura eginez*)

Amaren ondotik kendutako jaioberria ematen zuen.

KAZETARIA: Gauza da hor bertan hondoa jo zuela, Antillako Hondartzan. Eta hortik ondorioztatzen da....

ARRANTZALEA 2: Hortik ondorioztatzen da hazka egitera etorri zela.

KAZETARIA: Hazka egitera?

ARRANTZALEA 2: Horixe, zorriek ez zioten bakean uzten, eta haiek kendu nahian etorri zen kostaldera. Horregatik mugitzen zuen hainbeste burua, eta horregatik astintzen zuen isatsa hain gogor uraren kontra. Azkurak erotu beharrean zegoelako.

ARRANTZALEA 1: Alde egin ezak hortik...

ARRANTZALEA 2 (*ukalondokoa*): Baietz ba. Azkurak zegoan.

ARRANTZALEA 1: Azkurak...? (*Hazka egiten hasiko da*). Aizak ba, egia esan...

ARRANTZALEA 4: Zortzi arpoi sartu genizkion, bata bestearen atzetik. Eta gero bizkar gainean dinamita jarri. Bertan geratu zen seko. Seko kiskalita.

KAZETARIA: *Modus operandi* interesgarria. Zenbat kilo dela uste duzue?

ARRANTZALEA 1: Mila arroa inguru.

ARRANTZALEA 2: Baita gehiago ere. Mingaina bera bakarrik da 200 arroa.

ARRANTZALEA 1: Ba, mila eta berrehun arroa orduan. 15.000 kilo, alegia.

ETXEKOANDREA 1: Ur hauetan ez da sekula horrelako animaliarik ikusi.

ETXEKOANDREA 2: Idatzi, idatzi zure periodikoan oriotarrok itsasoko azken tripazaina harrapatu dugula.

ARRANTZALEA 1: Hori da, eta betoz denak ikustera.

ARRANTZALEA 2 (*ukalondokoa*): Ikustera ez, eroatera. Enkatean jarriko dugu-eta, erreal franko ateratzeko.

ARRANTZALEA 1: Ba, eroatera... (*ukalondokoa*). Baina ikustera ere bai

(Ukalondokoa). Horrela... (ukalondokoa) diru gehiago aterako dugu.

ARRANTZALEA 2: Auuuu...!

KAZETARIA: Begira hona.

*Denak geldi-geldi, kazetariak argazkia atera zain geratuko dira.
Zaharra sartuko da orduan, aulkia arrastaka duela.*

ZAHARRA: Begiratu arretaz. Balea beti dago pozik. Hilda ere, ez du umorerik galtzen. Erreparatu buruari. Begiratu begietara. Barre egiten ikusiko duzue. Barrez ari da. Zorigaitz handienaren aurrean ere barre egiten du.

Zaharra aulkian esertzean, flash eta denak mugitzen hasiko dira.

SUBASTATZAILEA (*mailua eskuan*): Jaun-andreok, "Orioko balea", Balaena Biscayensis espeziekoa eta Euskal Balea izenez ere ezagutua, jendaurreko enkantean saltzera goaz. 12 metro luze eta 15 tona. 6.000 errealetik abiatuko gara. Hasi prezioa puzten.

Isiltasuna. Denak harrিতuta elkarri begira

KAZETARIA (*idazten ari da*): Gaur eman diote hasiera Orioko San Nicolasen *in situ* harrapatutako balea enkantean saltzeko ahaleginari. Baina lehenengo pujan ez da eskaerarik entzun *vox populi* artean. (*Arrantzale batek zerbait esango dio belarrira subastatzaileari*).

SUBASTATZAILEA: Euskal Balea, Orioko uretan harrapatua: itxura aparta eta ondo kontserbatua. Ikusi ze buztan eta ze gerri buelta dituen, ez al da *potxolada* bat, e? Euskaldun guztiak harritzeko moduko ugaztun ikaragarria, 4000 errealeko prezio barregarrian dago salgai. Hasi prezioa puzten.

Isiltasuna. Denak harrিতuta elkarri begira

KAZETARIA (*idazten ari da*): *Ipso facto*, bigarren enkantea egin da, baina emaitza berbera izan da. Egindako ahaleginaren ondoren, oriotar ausartak behea jota daude... (*Denek haserre begiratuko diote: tatxatu eta zuzendu egingo du*)... haserre daude.

SUBASTATZAILEA (*besoak gora igo eta mailua erakutsiko dio jendeari*): Hara, jaun-andreok! Orioko Balea enkantean jarri dugu. Eta saltzen ez bada oso-osorik jango duzue, antxoa txikia bezala...

ETXEKOANDREA 3: Ez haserretu lagunok. Badakit zer egin. Zergatik ez dugu geronek txikitu eta zatika saltzen? Ezagutzen dut bale-koipez betetako ehun upel erosiko lituzkeen bermeotar bat.

ETXEKOANDREA 4: Aterki kirtenak egiten dituen lantegi bat bizarrak erosteko prest dagoela esan didate niri.

ARRANTZALEA 1: Kitto, ba! Balea larrutu, koipea erre, hezurdura zatitu eta zatika salduko dugu.

Denak ados daude. Jende guztia batetik bestera mugitzen hasiko da erotuta. Zaharra, aulkia hartu eta, lehenengo planora pasako da. Bi aizkolari sartuko dira.

AIZKOLARIA 1: Zenbat kana botatzen dizkiok?

AIZKOLARIA 2: Zer esango diat, ba! Hamabiren bat kana edo...

AIZKOLARIA 1: Hortxe, hortxe ibiliko duk... Niri utziz gero di-da batean txikituko nitek.

AIZKOLARIA 2: Eutsi mutil, ni burutik hasiko nauk, eta hasi hi isatsetik. Ehun duro aurrena bukatzen duenarentzat.

ZAHARRA: Balea enborra dela uste dute hauek. Oraindik ez ditugu handienak entzun.

Arrain-saltzaile bat sartuko da.

ARRAIN-SALTZAILEA: Oso erraza da-eta: erditik ireki eta bi zatitan egin. Lehenengo, xerra fin-finetan ebaki alde bat, eta, gero, bestea... Eta bukaeran burua eta isatsa kendu. Ez dauka beste munduko gauzarik!

ZAHARRA: Balea bisiguarekin nahastu dute. Zapaburuak!

Bi etxeakoandre sartuko dira.

ETXEKOANDREA 1: Nola aterako dinagu koipea?

ETXEKOANDREA 2: Jesus, emakumea! Segoa sutan jarrita!

ETXEKOANDREA 1: Horixe, sutan puska handi-handiak jarrita.

ZAHARRA: Puska handi-handiak ez, bibliak. Biblia fin-finak.

ETXEKOANDREA 2: Bibliak?

ZAHARRA: Bai, bibliak.

Emakumeek elkarri begiratu eta "hau seko pitzatuta dago" keinua Egingo dute.

ETXEKOANDREA 1: A, bai, Bibliak. Ebanjelio eta guzti, ezta? Aitaren, semearen eta...

Arrantzaleak sartuko dira.

ARRANTZALEA 3: Labanak hautsi egiten dituk eta aiztoak okertu. Balea larrutzeko tresnak falta zaizkiguk.

ARRANTZALEA 2: Lasai, anaia hargina diat, eta hark bazaukak burdina bera ere mozten duen zerra bat.

ARRANTZALEA 1: A ba, orduan ez duk ezer falta.

ZAHARRA: Ez dela ezer falta? Horixe falta dela! Kakoak eta labanak falta dira, kobrezko kalderak, koilarak, eta palak ere bai! Baina, batez ere, jakituuuria! (*Isiltasuna. Denak sartu eta begira geratuko zaizkio.*) Balea, lagun maiteok, mota guztietako jeneroz betetako despentsa da. Baina horiek ateratzen jakin egin behar da. Ja-kin! Gainera, balearen hilotzak ere errespetua merezi du. Ezin da inauterietako panpinak bezala txirtxilatatu, jolin! Arima galdu badu ere, haren zati bakoitzak oraindik bizia du. Baina horretarako tratatzen jakin behar da. Tratatzen... jakituuuuriarekin!

Isiltasuna, eta handik pixka batera korrika hasiko dira denak.

KAZETARIA (*idazten ari da*): Udaberriko egun zoragarri honetan, Orioko herria harrapatu berri duen arrainari etekina ateratzeko zorian dago. Eta gaur ere *El Correo Guipuzcoano*, Orion da albistea izandako tokitik bertatik kontatzeko *grosso modo, urbi et orbi, sine qua non, totus tuus...*

ZAHARRA (*Kazetariari jarduna etenez*): Lehenengo eta behin, animalia larrutu egin behar da, azalari tira eta tira. (*Kazetariarengana hurbilduko da, begiradarekin mehatxu eginez; Kazetariak ez daki zer egin, barre egingo du*). Hori pixkanaka-pixkanaka egin behar da, burutik hasi eta

poliki-poliki. Oso erraza da. Ondo eutsi, eta... tira gogor!
(*Esaten duen bezala, kazetariaren masailari eutsi eta tira egingo dio*)

KAZETARIA: Ai! *Vade retro!*

ZAHARRA: Baleari azala kentzea sagarra zuritzea bezala da. Baina ondo hasi beharra dago.

KAZETARIA: Azala, noski, zuzenean zakarretara botako duzue gero. Azal latz eta gogor hori...

ZAHARRA: Bai zera! Horrekin primerako uhalak egiten dira... (*Bere gerrikoa erakutsiko du*) Eta eskimalek bezalako eskularru eta oinetako onak. Orain labana zorrotzak, zerrak eta kakoak behar dituzue baleari koipea ateratzeko. (*Joko bera: kazetariarengana hurbildu eta mitxelinak ukituko dizkio*) Baleak zerbait baldin badu koipea da, koipe asko, ia metro-erdi koipe...

KAZETARIA: Azkenaldian aerobic-a nahiko utzita daukat eta...

ZAHARRA: Hau ondo-ondotik moztu behar da... Honela... (*kazetariak Kilikiliak ditu*) Honelaxe! (*Saihetsean min hartuko du*) Ez zaio utzi behar. Koipetik irabazi handiak aterako ditugu. Kandelak, glizerina, enplastoak, xaboia, gabardinak... egiteko erabiliko dugu.

KAZETARIA (*usainka*): Usain txarra dago, ezta?

ZAHARRA: Usaina ez, kiratsa! Balearen koipeak egostean kristoren kiratsa botatzen du, muskuiluari bizarrak gogortzeko adinakoa.

KAZETARIA: Zer da ahotik ateratzen ari zaion hori?

ZAHARRA: Bizarrak dira, baleen hortzak. Hori ere kendu egin behar baitzaio. (*Kazetariak hortzak tapatuko ditu azkar*). Hamaika gauza egin liteke balearen bizarrekin... Adibidez...

Musika. Hainbat pertsonaia aterako dira, modelo desfilean bezala.

AURKEZLEA: (*Neska lirain bat sartuko da aterki / sonbrila eta abenikoarekin*) Lehenengo adibidea. Joan den mendeko aterki eta sonbrilen barillak bale-bizarrekin egiten zituzten. Bestetik, hain osagarri emea den abenikoa ere, fibra berarekin egiten zuten. (*Gizon dotore bat*

sartuko da bastoi eta txisterarekin) Dandi modeloa. Begira iezaiozue bastoiaren helduleku ederrari, balearen bizarrean tailatua dago. Era berean, gizonetzkoen zenbait kapelak ere aipatutako materialaz egindako haritxoak dituzte euskarri. (*Dantzari bat arkuarekin*) Euskal folklore modeloa. Historikoki gure dantzarien arku tradizionalak balearen bizar malguekin egiten ziren. Aupa! (*Neska gazte bat "maricastaña"ren garaiko kortsearekin*) Eta bukatzeko pikardia modeloa. Zein damari ez zaio gustatzen kortse on batekin gorputza edertzea? Kortsea balebizarrekin egiten zenez, gaztelaniaz "emballenado" deitzen diote, eta ingelesez "????".

ZAHARRA: Lo hartu gabe, e, oraindik ateratzeko asko dago-eta: tripak eta erraiak, bertebrak, saihegak eta beste hezurak, mingaina eta hegalak... (*Esan ahala, Kazetariak zati bakoitza erakutsiko du*) Baina bereziki: bihotza. (*Isilunea: Korua*)

KAZETARIA: Balea ama bihotz zabala da. *Alma mater*. Sekula ez ditu umeak alde batera utziko. Eta bizia ere emango luke haien alde.

ZAHARRA: Hala da bai. Baleak bihotz handia du.

Bihotz taupadak: Korua.

SUBASTATZAILEA (*mailua eskuan*): Orioko Baleari ateratako 300 arroa koipe. 5.000 errealean jarri dugu enkantean. Hasi prezioa puzten.

AHOTS BATEK: 5.500 erreal...

SUBASTATZAILEA: 5.500 jaunarentzat.

BESTE AHOTS BATEK: 6.000 erreal.

SUBASTATZAILEA: 6.000 erreal.

AHOTS BATEK: 6.500.

BESTE AHOTS BATEK: 7.000.

SUBASTATZAILEA: 7.000, bat... bi... hiru! Koipea 7.000 errealean saldu da.

BESTE AHOTS BATEK: 200 erreal mingaina eta tripengatik.

SUBASTATZAILEA: Jaunarentzat dira mingaina eta tripak 200 errealen

truke. Eta bizarrak? Zenbat eskainiko zenukete bizar eder horiengatik?

BESTE AHOTS BATEK: 100 duro.

BESTE AHOTS BATEK: 120 nik.

SUBASTATZAILEA: Beste jaun horrentzat bizarrak 120 duroan. Herritar maiteok, gastuak kitatuta, salmentaren irabazia... 4.000 erreal dira!

DENEK: Ondo...! Aupa!

KAZETARIA (*idazten ari da*): Orion festa giroa nabari da, loteriako sari nagusia tokatu izan balitz bezala.

DENEK: Aupa, Orio...! Gora, balea...!

ZAHARRA: Ba al dakizue zergatik den ezberdina Euskal Balea gainerakoan aldean? Beti barrez dagoelako. Gurea da mundu osoan umore ona duen balea bakarra. Beti dago barrez. Beti dago barrez... barrez... barrez...

(Barre egingo du) Iluna. Balearen marruak grabatuta. Trantsizioa.

ATALIAKO AHOTSA: Baleak...! Baleak...!

Zenbait aktorek tela urdin bat zabaldu eta astindu egingo dute itsasoa balit bezala. Hiru sare-josle bazter batean eseriko dira, eta josten ari direla berriketan jardungo dira.

SARE-JOSLEA 1: Esaten dinat, ba, ez zagon gureak bezalako gizonik. Ea, esan ezan: zein atrebitu zitunan lehenbizikoz baleak harrapatzen? E, zein? Gure arrantzaleak!

SARE-JOSLEA 2: Bai, eta makina bat sare josi dinagu ordu ezkerro. Zenbat urte ote dira?

SARE-JOSLEA 1: Uf... Jakin ezan... Ni artean soltera nengonan-eta, erraz-erraz... mila urte bai!

ATALIAKO AHOTSA: Baleak...! Baleak...!

Kanpai-hotsa

SARE-JOSLEA 3: Talai-mendiko atalaialeroa dun. Negua han goian pasatzen din, itsasoan zer gertatzen den begirik kendu ere egin gabe. Lehengo lege zaharreko paparazzia dun. Haren kanpai-hotsa entzutean, arrantzaleak txalupetan sartu eta uretara ateratzen ditun.

Lurrean, itsasoan egongo balira bezala, hiru arraunlari eta patroia.

PATROIA: Eutsi horri, aurrena ailegatu behar dugu eta. Balea gurea da.

SARE-JOSLEA 2: Beti esaten zidan gizonak inportanteena inor baino lehenago ailegatu eta aurreneko arpoia sartzea dela. Horrela... hiretzat partiketean zatirik onena.

SARE-JOSLEA 1: Orain ulertzen dinat nondik datozen pikeak: bateko Getaria Zarautzen kontra dela, besteko Orio Zumaiaren kontra dela, Donostia Pasaiaren kontra...

Bigarren tripulazio bat agertuko da.

PATROIA 2: Eutsi, harrapatuko ditugu eta...

PATROIA 1: Tira gogor mutilak, zuek horiek baino gehiago zarete eta!

PATROIA 2: Bat, bi, hiru... Aurreraaaa...eup! Ez etsi, ia-ia parean gara eta!

SARE-JOSLEA 1: Arpoilaria olinpiadetako tiratzailea bezalakoa dun. Indarra eta punteria behar ditin.

PATROIA: Atzera, atzera! Eraso egingo digu-eta...

SARE-JOSLEA 2: Ene! Irauli egingo ditin!

SARE-JOSLEA 3: Ondo ipurtarinak atera zaizkigun, bai, gizonak! Amerikaraino joaten hituen baleei segika.

SARE-JOSLEA 2: Bai! eta... Kolonek Amerika deskubritu aurretik! Guk, ordea, ez geninan hark adina ipuin eta txorakeria ibili. Bai, eta makina bat sare josi dinagu ordu ezkerro. Zenbat urte ote dira?

SARE-JOSLEA 1: Hara, erraz-erraz... ni ezkondu berria nindunan... Ba... 600-700 bat urte bai!

SARE-JOSLEA 3: Ternuan iceberg tartean ibili behar izaten omen diton, hotzari eta gaixotasunei aurre eginez. Guri bai horrelakoa!

Barkukoak, hotzak akabatzen, zahatoa pasako dute euren artean, etab.

SARE-JOSLEA 1: Ba, baten batek berotuko ditin aldian behin.

SARE-JOSLEA 2: Itsaso zabalean? Zeinek!?!?! Ttuntunpaela!

SARE-JOSLEA 1: Fiatu, ipurtzikin asko zagon bazterretan!

Uretatik Boticcelliren Venus bat aterako da. Liluratuta geratuko dira.

SARE-JOSLEA 3: Gero, holandes eta frantses asko etorri zunan ofizioa ikastera. Eta gu tontoak izan, eta erakutsi. Debalde, gainera. Ez dinagu inoiz ikasiko...

Tripulazio batean frantses bat apunteak hartzen ari da.

FRANTSESA: A, *c'est très intéressant!* Hau zezenetan ibiltzea bezala da... baina *adagkadagik hagtzeko aggiskugik gabe.*

PATROIA: Kontuz isatsarekin...!

Barkua hondora doa.

FRANTSESA: *Adagkadagik gabe, baina isatskadagekin... Glub!*

Marinelak eta telazko itsasoa desagertu egingo dira. Denak eszenatokira.

SARE-JOSLEA 2: Kontuak kontu, mende onak pasatu ditinagu baleari esker.

SARE-JOSLEA 3: Horregatik agertzen dun balea herri askotako armarrietan: Getarian, Miarritzen, Hondarribian, Zarautzen...

ZAHARRA: Hori bakarrik ez. Baleak bizitza poztu digu bere irribarrearekin.

AHOTS BATEK: Gora, balea!

DENEK: Gora...! Gora...! Gora...!

ZAHARRA: Baina bukatu da. Bukatu da hori dena. Gaur 1901eko maiatzaren 14a da, eta hemen, Orion bukatu da betiko Euskal Balearen historia. Goian bego.

KAZETARIA: Baina... zergatik?

ZAHARRA: Zergatik? Ez delako gehiago etorriko! Bale guztiak akabatu ditugu! Ez al duzue ulertzen? Itsasoa nagusirik gabe geratu da, erregerik gabe. Gehiago inork ez du barrerik egingo ur hauetan. Inoiz ez.ç

Isiltasuna eta hausnarketa. Zaharra, eskuak buruan, eseri egingo da. Denak burumakur, triste. Hainbat puntutatik bandera hori handiak astinduko dituzte gazteek indartsu. Korua arnasa hartzen hasiko da.

ATALAIAKO AHOTSA: Baleak...! Baleak...!

Poliki-poliki burua altxatuko dute denek, harrituta.

ZAHARRA: Esnatu, lagunak! Esnatu! Mende berri bat hastera doa. Esnatu! Garai Berri bat da!

ATALAIAKO AHOTSA: Baleak...! Baleak...!

Koruko ahotsak handitzen ari dira. Bihotza poliki-poliki eta irregularki taupadaka hasiko da. Zaharrak kapusaia kendu, eta, arropa argi eta modernoago bat geratuko zaio soinean. Zutitu eta indarrez betetako gazte bat bezala agertuko da.

ZAHARRA: Entzun! Baleak dena eman zigun guk gehien behar genuenean. Baina orain berak behar du gure laguntza. Ezin diogu hutsik egin. Lagundu egin behar diogu. Denen artean aterako dugu!

ARRANTZALEA: Agian... beranduegi da.

ATALAIAKO AHOTSA: Baleak...! Baleak...!

Bihotz taupadak indartu egingo dira. Korua horren erritmora.

NESKA GAZTEA (*horizontera begira*): Begira! Itzuli egin dira! Guregana datoz! Biziz betetako mendiak dira...! Ama zintzoak...! Itsasoa... itsasoa barrez ari da berririo! Balearen irribarrea da! Gure baleak barre egiten du... bai, nola barre egin gainera! Barrez ari da ostera!

Bihotzak gero eta indar handiagoz taupada egingo du. Azkenean, biziz

gainezka lehertuko da. Koruak Baiaeren Bertso berriak abestuko ditu. Bukatzean, aktoreak erriora jaitsiko dira balea sendatzeko esponjak, olio eta telak hartuta. Dantzariak dantza bat egingo dute zetazeoaren ohoretan moilan. Behin osatu denean, traineruak baiaeren jiran antolatu eta itsasoraino lagunduko diote, bizitzen jarrai dezan. Kanpaiak joko dituzte, txalaparta, irrintziak entzungo dira... Jendeak txalo artean agurtuko du.